

## Goierri Verkol taldeak maila berean segiko du

**Urrats** Omenaldia egingo diete ekainaren 7an 1969 urtetik saskibaloia bultzatzeko lanean aritu diren hiru pertsonari

M. LUKI

Goierri Verkol taldearen kontra irabazi egin du asteburua (92-87), eta garaipen horri esker Nazionalako Lehenengo Mailari autsiko dio datorren denboraldian ere.

Padurak Goierri Verkol taldeko jokalariek baino hobeto hasi zuten partida, erasoan finago ibili ziren eta abantaila ere lortu zuten markagailuan. Hirugarren laurdenaren ostean, Goierri partida bere egin zuen.

Hala eta guztiz ere, Padurakoak

gogor aritu ziren, eta partidaren azken hamar minutuak «zoratzeko modukoak» izan zirela aitortu du Goierriren entrenatzaile Xabier Chicok. Azkenean Goierri irabaziegina zuen, eta orain arte lortutako emaitzei batuta maila mantentzea lortu dute.

### Ekainaren 7an omenaldia

Goierriko saskibaloia saila omenaldi bat antolatzen ari da. 1969 urteko Urrats eta Zumaian saskibaloia sustatzeko lanean aritu diren hiru laguni eskertu omenaldia egingo dute. Bakartekak: Baktin Berriotxo, Paco de Miguel eta Anton Rodríguez izango dira, hain zuzen ere.

Omenaldia ekainaren 7an izango da, eta aurreratu dutenez egun horretarako «saskibaloia partida berezia» antolatzen ari dira.

## Maiatzean ospatuko da bereziki Legazpi banatu zeneko 400. urtemuga



Bertso musikatuaren ikuskizuna, herenegun, Legazpin. Balorazio oso ona egin dute antolatzaileek. ERRIKARTE AGUIRE

## Bi lagun atxilotu dituzte asteburuan enpresa batean lapurtzeagatik

**Legazpi** Ertzaintzak ikerketa zabaldu du apirillean izandako beste lapurreta batean nahastuta dauden argitzeko.

M. LUKI

Ertzaintzak bi lagun atxilotu zituen larunbat goizaldean Legazpin, ustez Urola industrialdeko enpresa batean metalezko piezak lapurtzeagatik.

Herrizango Sailak emandako datuen arabera, larunbat goizaldeko 04:30 aldera Urola kaleko industrialdean zarakentzuz zituzten lekukoak, pabiloi batean.

Miaketa egin ondoren, metalezko hogeitabat pieza handi aurkitu zituzten ertzaiek trenbidearen ondoan pilatuta; antza denek piezak garraiatzeko prest utzita zeuden han.

Enpresa bateko babes hesia ere ebakita zegoela egiaztatzen zuten; ustez, handik atera zuten aipatutako materiala.

Ertzaiek bi gizonetako aurkitu zituzten zuhaixka batzuen artean ezkatuta, eta atxilotu egin zituzten, indarra erabiliz egindako lapurreta delitua leporatuta.

### Aurretik identifikatuta

Bi atxilotuak ordu batzuk lehenago, goizeko ordu bata aldera, identifikatu zituzten Urratsetik Legazpira arteko errepidean Ertzaintzak jarritako trafikoko kontrol batean.

Bi atxilotuak epailearen esku utzi zituzten. Ertzaintzak ikerketa zabaldu du, apirillean Legazpiko industrialede bereko hainbat enpresatan gertatutako metalezko materialen beste bi lapurretan bi atxilotu horiek nahasita dauden alaez argitzeko.

**Legazpi** Herenegun bereziki ziren Santikutz jaiek Bertso Eskolaren *Eta 400 urte hauetan Segura izan bagina zer?* saioarekin.

MIRIAM LUKI

Aurrera doa Legazpi Seguratik banatu zela laurhun urte betetzen diren urtea, eta hasi berri den maiatzerako orain artean baino ekitaldi eta jarduer gehiago antolatutako 400 Urtez Aske batzordeak. Jai nagusien txanda egitarau horrek hartuko du orain.

Bertso Olariak eskolako kideek agurtu dituzte Santikutz jaiek, bertso musikatuaren ikuskizunarekin. Legazpiaren banaketaren harira *Eta 400 urte hauetan Segura izan bagina zer?* antzeztu zuten.

Udaletxe ondoko oholtzaileak legezpiar ugari igo zen, baita beste asko inguruan bildu ere. Beñat Aierbe eta Xabier Barriola musikariek lagunduta Bertso Eskolakoek herriaren historiari errepaso egin zioten, bertsoak kanta bihurtuz Taulatuaren aurrean zeuden entzuleek ere musikari jarraitu zioten, kantariak lagunduz.

### Lehenengo mendi marxa

Datorren igandean, Mirandaola egunean, bere tokia izango du urteurrenak Goizeko antzerkiaren gaia izango da.

Hilaren 16an Aizkorri Barrena mendi marxarekin ikus-entzunezkoa emango dute Aitor Casadok egina, urriaren 12rako antolatu duten ibilbideko irudiak botako dituzte. Hilaren 18an Segurara joango dira, bide zaharretatik.

### EGITARAUA

■ **Eti.** Burdinola elkartearen Txinpartak aldizkariaren ale bereziaren aurkezpena, Patrizio Etxeberriari buruzkoa Kultur etxean 19:00etan.

■ **Maiatzak 11, igandea.** Mirandaola eguna, Legazpiharana: *anexiotik emantzipaziora* antzezlan.

■ **Maiatzak 16, ostirala.** Aizkorri Barrena mendi marxari buruzko ikus-entzunezkoa, Aitor Casadok prestatutakoa Kultur etxean 20:00etan.

■ **Maiatzak 18, igandea.** Legazpi Segura antzinako bidetik mendi marxa, Izadi-zaleak eta Burdinola elkarteen eskutik.

■ **Maiatzak 29, osteguna.** Legazpi *los ferrones vascos* hitzaldia, Jose Antonio Azpiatzuk eskainia Kultur etxean 19:00etan.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



2 lagunentzako otordua

Rubiorena

JAIETXEAN

Sariduna: maiatzaren 9an

Zatiduzurreta, 7 - 943 88 57 60  
BEASAIN